

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

3.400 pertsonek parte hartu dute 2012an Nafarroako Jauregira egindako gidatutako doako bisitetan

Kopuru horretatik, 1.310ek antolatutako taldetan bisitatu zuten eta beste 1.684k azaroaren 24tik abenduaren 2a bitarte burututako "Nafarroako Jauregiak bere atek zabaltzen ditu" programaren barnean

Jueves, 10 de enero de 2013

Guztira 3.400 pertsonek parte hartu zuten Foru Komunitateko Gobernuaren egoitza den Nafarroako Jauregiko gela nagusietatik 2012an zehar egindako gidatutako doako 120 bisitetan.

Zehazki, kultur erakunde, erretiratu-talde, ikastetxe, unibertsitate eta beste erakunde batzuetako antolatutako 68 taldek arratsaldeko lehen orduan egin zituzten bisita gidatuak, astelehenetik ostiralera. Bisitari gehienak –52 talde 1.310 kiderekin– Nafarroatik etorri ziren eta gainerakoak –16 talde 406 bisitarirekin– beste eskualde eta herrialdeetatik.



Barcina Lehendakaria herritar-talde bati Tronuaren Aretorekin berri ematen, "Nafarroako Jauregiak bere atek zabaltzen ditu" programaren bisita batean.

Antolatutako taldeen bisitez gain, Nafarroako Egunaren bezperan – azaroaren 24tik eta abenduaren 2a bitarte– "Nafarroako Jauregiak bere atek zabaltzen ditu" programa garatu zen; bertan 1.684 herritarrek eman zuten izena eta gidatutako 52 taldetan egin zuten bisita Jauregitik.

Erakunde Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko langileek arreta emandako bisita horien barnean sartzen da: Tronuaren Aretotik, Jauregiko gela nagusitik eta beste gune noble batzuetatik egindako ibilbidea (Gobernuaren bilkura-gela, Lehendakariaren bulegoa, Kapera eta areto Berdea edo Lehendakariaren aretoak). Ibilbide horretan honako artista aipagarri hauen obrak ikus daitezke: Francisco de Goya, Pedro Pablo Rubens, Vicente López, Federico de Madrazo, Mariano Benlliure, Gustavo de Maeztu edo Jorge Oteiza

Nafarroako Jauregia 1840 eta 1851 artean eraikitako eraikin neoklasikoa da, eta inauguratu zenetik igarotako 161 urteetan zehar Nafarroako foru-erakundearen egoitza izan da.

20 eta 40 pertsona arteko taldea osatuz ezaugarri horietako doako bisita gidatua egin nahi duten kultura- eta gizarte-erakundeek, Nafarroako Gobernuaren Protokolo Atalean informazioa jaso dezakete, 848-427128 telefonoan (08:00etatik 15:00ak arte) eta protocolo@navarra.es helbide elektronikoan. Hitzartutako bisitak 15:30ean hasten dira, astelehenetik ostiralera, udan izan ezik.